

Hona hemen A mailan irabazlea suertatu den Eztizen Agirresaroberen poema bat, zeinetan gure Ikastolako sarituen istorioak laburbiltzen diren.

Zazpi ipuinetatik zazpi istorio,
zazpi istorioetatik hamaika pertsonaia,
pertsonaia bakoitzak mila ezaugarri
eta irakurleen sentipenak zenbagaitzak.

Donostiako bankuetako lapurretekin Ertzaintza lanpeturik,
irakurlea, aldiz, ohartxoetako kodeak deszifratu nahirik.

Kobre lapurren azpijokoan denok erori garelarik,
ezin izango dugu erabili sakeleko telefonorik.

Udazken hostoak bailiran bi lagun,
bata zuhaitzean eta bestea lurrean,
biak elkarrekin egoteko irrikitan,
zuhaitzekoa lurrera noiz eroriko zain.

Asteartean puenting egitera doa Elaiia lagunekin,
baina, zail samarra eskaiolatutako hankarekin.

Hala ere, puenting nola egin hanka hautsiarekin?

Ba, sekulako ausardiarekin.

Txantxangorriak alaitzen du basoa bere kantuez,
nahiz eta inork ez miretsi duen gaitasuna.

Txantxangorria akabatzean, ordea, herritarrak tristuraren tristuraz
daude basoaren isiltasunean galduta.

Soldadu estatubatuarrak irakiarrei terrorista etiketa ipinita,
irakiarren xedea aberriaren askatasuna lortzea izanik,
suntsipen handiko armen aitzakiak balio izango du askatasunaren izenean
borrokaturikoek hain patu ezberdinak izan ditzaten.

Alabak amari idatziriko gutun hotzean
iraganeko zenbait gertakari mingarri.

Oraina bakarrik eta kale gorrian bizi duelako,
idaztera jo du Leirek barrena hustearren.

Ablazioa uste usteletan oinarrituriko ekintza mingarria,
bizi osorako ezartzen diona biktimari bere zigilua.

Gaur egungo egoera latza izan arren,
gerora hobetuko den ziurtasuna amets.

Zazpi ipuinetatik zazpi istorio,
zazpi istorioetatik hamaika pertsonaia,
pertsonaia bakoitzak mila ezaugarri
eta irakurleen sentipenak zenbagaitzak.